

# **RASFF TXOSTENA**

## **ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK**


### **PENTSUAK**

#### **2024. URTEKO TXOSTENA**


Jakinarazpenen kategorizazioa  
Identifikatutako arriskuen jatorria  
Tartean dauden produktu motak  
Tartean dauden lehengaiak

## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2024an, lau hilean behin kontsultatutako datuen arabera, animalien elikadurarako produktuei buruzko 306 jakinarazpen egin dira. Horietatik **49 alertak izan dira (% 16)**, **211 informazio-jakinazpenak (% 69)** eta **46 mugan egin diren ukapenak (% 15)**.



Hona hemen urtean zehar RASFF bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:




Jakinarazpenetako produktuen jatorrizko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeak % 40 izan dira.**




## IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUEN JATORRIA

2024an hautemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 49**). Ondoren, honako hauek nabarmentzen dira: **pestizida-hondakinen eta ezpurutasun botanikoen presentzia (% 9) eta bestelako presentzia (% 6), honako hauek barne: gorputz arrotzak, plastiko-hondakinak, gehigarri kopuru altuak, eta abar.**




**Arrisku mikrobiologikoei** dagokienez, kasu gehienetan, **mikrobiologiaren presentziaren** ondorio izan dira (**150 jakinarazpen**), eta horien artean, **salmonella** nabarmentzen da (**114 jakinarazpen**). Salmonella hauteman den lehengaien artean, nabarmentzekoak dira **soja- eta koltza-produktuak eta ekilore-produktuak eta arrain-irina**.




## TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuen arabera, **lehengaiak eragin dituzte** jasotako jakinarazpenen **% 69**, **etxeko animalientzako pentsuek % 19**, **loditzeko animalientzako pentsuek % 9** eta **gehigarri eta aurre-nahasketek % 3**.




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakaera, lauhileko bakoitzeko:



## TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoak dira, jakinarazpen gehien eragin dituzten lehengaien artean, **soja-produktuak (29)**, **koltza-produktuak (21)**, **txakurrentzako mastekagarriak (17)**, **ekilore-produktuak (14)** eta **arrain-irinak (14)**.



## AURREKO URTEAREKIN KONPARAZIOA

2024an 306 jakinarazpen egin dira, eta 2023an 296 egin ziren. Aurreko urtearekin alderatuta, 2024an honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Arrisku mikrobiologikoa da oraingoan ere detektatutako lehenengo arrisku-mota (% 49 inguru). Arrisku mikrobiologikoak zertxobait behera egin du aurreko urtearekin alderatuta.**
- **Hautemandako arriskuen ehunekoak antzekoak dira (mikrobiologia, metal astunak, mikotoxinak, etab.) 2023koekin alderatuta. Nabarmentzekoa da pestizida-hondakinek % 32 eta ezpurutasun botanikoeak % 53 egin dutela gora.**
- **Mugan egin diren ukapenak, berriz, % 26 murriztu dira.**
- **Pentsu konposatuetan arrisku gehiago hauteman dira (% 58 gehiago) eta gehigarri eta aurre-nahasketetan gutxiago (% 24 gutxiago). Lehengaietan eta etxeko animalientzako pentsuetan hautemandako arriskuen ehunekoa iazkoaren antzekoa da.**
- **Jakinarazpenetan jasotako lehengai nagusiak aurreko urtekoaren antzekoak dira: soja- eta koltza-produktuak, arrain-irina eta ekilorez egindako produktuak.**